

ALBOKA ESKOLA MARTXAN

Orain dela hiru urte Oiartzungo Txalaparta Eskola martxan jarri genuen eta hasi berri den ikasturte honetan (2002-2003) txalapartzaz gain Alboka Eskola martxan dugu ere bai. Modu honetan Herri Musikaren Txokoaren erronka den Oiartzungo Herri Musika Eskola piskanaka piskanaka osatzen ari da.

Ikasturte honetan txalaparta klaseak Hernaniko Txalaparta Eskolako Iñigo Monrealek ematen ditu eta Alboka klaseak Hernaniko Alboka Eskolako den Aritz Ezeiza albokariak. Alboka ikasteko zazpi ikasle dira eta klaseak ostegunero Auzokalte Elkarteko lokalean ematen dira. Txalapartarekin gertatu den bezala, alboka klaseek beren fruituak emango dituztelakoan gaude.

KONTZERTU ONDOREN AFARIA

Eta aurreko kontzertuetan egin genuen bezala, kontzertu ondoren musikariek inoiz kantatzeko eta elkarrekin kantatzeko, jotzeko eta dantzatzeko aukera emanez, Auzokalte Elkartearen (Herri Musikariek Txokoaren ondoan) afaria antolatu dugu. Bertan egon nahi izan ezker nahikoa izango da abenduaren 25a baino lehenago gurekin harremanetan jartzea eta izen ematea. Ah, prezioa 12 € bakarrik. Tokia mugatua dagoenez, interesaturik bazaude egin zure eskaera lehenbait lehen.



Jardunaldien bukaerako erromerian Xabier Amuriza, Tapia eta Leturiaren emanaldia

MARTXA ONEAN BISITARI KOPURUAK

Udako oporraldiak pasa eta berriz hasi dira martxa onean ikastetxeetako bisita gidatuak eta bisita arruntak.
Urria: bisitarien kopurua: 209. Antolatutako taldeak: 9
Azaroa: bisitarien kopurua: 252. Antolatutako taldeak: 11
Abendua arteko biistari guztiak: 1923

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 / 20 180 OIARTZUN
Tel / Fax (9) 43 49 35 78
herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

HM

BERRIAK

2002ko abendua

4. zkia

HERRI MUSIKAREN 1. JARDUNALDIAK HERRI MUSIKA-BERTSOLARITZA Oiartzun, 2002-11-30, 12-01

Bertsozale Elkarte eta Oiartzungo Bertso Eskolarekin elkarlanean antolaturik, ospatu dugu iadanik aurreko Buletinean aurreratu genuen Herri Musika 1. Jardunaldiak egitas-moa. Orain Jardunaldi hauen aurkezpena eta egitaraua nolako izan diren, baita lehen balorapenak aurkeztuko ditugu.



Larunbateko mintegiaren mahaia

JARDUNALDIETAKO EGITARAUA

Azaroak 30, larunbata

-MINTEGIA Arritxulo Aterpetxean Herri musika-Bertsogintza

Joanito Dorronsoro: *Bertso doinutegia: altxor baten lekuko*

Juan Mari Beltran: *Bertsolaritza herri musikaren eragile sortzailea*

Andoni Egaña: *Bertsoa neurriaren musikan*

-Mintegiko partehartzaileen bazkaria Arritxulo Aterpetxean.

-Herri Musikaren Txokoan bisita.

-Oiartzungo Udaletxeko Areto nagusian JAIALDIA

Bertso kantaera desberdinak

Zuberotik, Jean Mixel Bedaxagar
Gipuzkoatik, K. Lizaso, J. Mitxelena
Bizkaitik, Jon Enbeita

Galiziako "regueifa"k, desafioak, bat-batekoak, itsuen erromantzeak zantzonekin: A. Castro eta X. Tubio.

Bertso-afaria

Abenduak 1, Igandea

-MINTEGIA Arritxulo Aterpetxean

Herri Musika eta Koplagentza Erromerietan

Iñaki Irigoien: *Dantza kantatuak*
Xabier Amuriza: *Koplagentzaren ezaugarriak*

-Mintegiko partehartzaileen bazkaria Arritxulo Aterpetxean.

-Oiartzungo Herriko Plazan ERROMERIA

Aurkezpen koplak

Oiartzungo Bertso Eskola

Lartaun Txistulari Taldea

Torrelavegako Pandereterak

Oiartzungo Trikitilariak

Hernaniko Dultzaineroak

X. Amuriza-J. Tapia-X. Leturia

Jardunaldiei buruz egiten dugun lehen balorapena erabat baikorra da, bai izan den parte-hartzaile kopuruen aldetik eta jardunaldiek izan duten garapenen eta martxarengatik ere bai. Egindako bi mintegietan parte-hartzaileen kopurua eta hauen aurkeztutako gaien inguruan izandako parte-hartzea handia izan da.

Larunbateko kontzertuan agertutako publiko ugariak maila oneko kontzertua entzuteko eta ikusteko aukera izan zuen. Espero zen moduan bertsolariak eta Galiziatik etorritako regueifistek bertso, koplak eta bestelako motako kantuz osatutako oso errepertorio zabala eta interesgarria eskaini zuten. Kontzertuak jarraipena izan zuen ondoren Girizi Elkartean egindako Bertso Afarian. Bertan afal ostean bertarutakoek bertso, musika eta dantzez osatutako saioaz gozatzeko aukera izan zuten. Igandeko Erromeriako eguraldia ez genuen alde izan, baina ala eta guztiz ere jende asko inguratu zen eta Udal Kontzejupean giro aparta bizitu genuen, bertsolari nahiz Torrelavegako pandereterek euskal eta Kantabriako koplak trikitixa, txistua, dultzaina eta pandero hotsez lagunduak entzuteko eta dantzatzeko.

Aurrerago Jardunaldietako aktak argitaratzea espero dugu eta modu horretan hauen txosten zabala edukiko genuke eta bertan jorratutakoa etorri ez ziren interesatuei zabaltzeko aukera emango genuke.

Kontzertuak Txokoan

H.M. TXOKOKO 2002 NEGUKO
KONTZERTUA

22002ko abenduaren 28. Larunbata, arratsaldeko 6,30etan. Herri Musikaren Txokoaren ondoko "Auzokalte" elkar-tearen aretoan.

JOXE LASA . "Azerigorri", JOXE LEKUONA. "Dukatene" (Oiartzun) BAUDOIN, Jean, Romain et Mathieu (Gaskonia)

Laugarren kontzertu honetarako Euskal herri musika aldetik Oiartzungo bikote beteteranoa eta kanpokoaren partetik Gaskoniako Baudouintarrek osatzen duten hirukotea aukeratu ditugu. Oiartzuarrek, jaiero egiten ziren gure bailarako "bileretan" edo erromerietan dantza suelto eta agarraurako entzuten zen musika eskainiko digute. Gaskoindarrek gure zarrabete antzeko Vieille à roue deitutako soinu-tresna inguruan arituko dira. Soinu-tresna hau ezagutzeko aukera paregabea izan daiteke gure kontzertuan aurkeztuko dutena.

Jean, Romain et Mathieu BAUDOIN



Joxe Lasa (trikitixa) eta Joxe Lekuona (panderoa)

JEAN BAUDOIN: musikari gaskoia, Pabeko kontserbatorioan irakasle, titulazioa: "Certificate d'Aptitude" (Vieille à roue - zarrabetea, Boha -Landetako xiolarrua, caremera-turuta-klarinetea, 3 zuloko flauta eta sokazko danborra, Gaskoniako perkusio tresnak)

ROMAIN BAUDOIN: titulazioa: "Diplôme d'État", herri musika irakaslea, "Família Artus" taldean musikaria. (Vieille à roue - zarrabetea, caremera-turuta-klarinetea, txirula eta danbolina, perkusioak)

MATHIEU BAUDOIN: Musika irakaslea, "Família Artus" taldean musikaria. (Vieille à roue - zarrabetea, 3 zuloko flauta eta sokazko danborra, ahotsa, caremera-turuta-klarinetea)

ZARRABETE TRADIZIONALETIK GARAIDERA, KLASIKOTIK IGAROTA

Proposatutako emanaldiak zarrabetearen bidea erakutsiko luke XVI mendetik gaur egun arte, eta bide batez Gaskoniako herri musikaren bilakaera. Kontzerturako mota ezberdinetako zarrabeteak erabiliko ditugu: zarrabete sopranoa, altua, tradizionala eta elektroakustikoa. Zarrabetea, ahotsa eta beste soinu-tresnak nahasiz, beraien artean sortutako koloreak eta tinbreak ezagutzera emango dira.

JOXE LASA . "Azerigorri". Soinu-txikia / trikitixa.

1928an jaioa Oiartzungo Gurutze auzoko Azerigorri baserrian. Familia musikari eta dantzari batean sortua zen aldetik berehala piztu zitzaion bere osaba Joxe Mari Lekuona trikitilariaren afizioa. 5 urterekin osabak oparituriko Hohner markako trikitixa txiki batekin hasi zen Joxe Marirengandik ikasten. Gaztetan han eta hemengo erromerietan berak ere parte hartzen zuelarik entzuten zituen piezak buruan gordez jarraitu zuen bere errepertorioa handitzen. Teknologia berriak Oiartzunera iritsi zirenean berriz Laja, Sakabi etabarren kasetak erosiz aritu zen pieza berrien ikasketan. Gaur egun, hatzak gogortuta ere, zer edo zer jotzen jarraitzen du.

JOXE LEKUONA."Dukatene". Panderoa.

1928an jaioa Oiartzungo Iturriotz auzoko Dukatene baserrian. Gaztetan zuen musikariko afizioa nonbaitetik atera nahian 20 bat urterekin erosi zuen bere lehen panderoa. Ahal zuen moduan baruan zeraman erritmoa atereaz hasi zen jotzen. Inguruko hainbat erromerietan bere borondatez parte hartuz ikasi zuen. Behin adinean sartuta Oiartzunen erakusten zuen Koldo Iparragirrerengana jo zuen gehiago ikasteko asmoz. Honek jotzen entzun zuenean ezer erakustekorik ez zuela eta bidali zuen. Gaur egun Joxe Lasarekin jotzen du han eta hemen.